

EUSKALTEGIEN TXOKOA UDAL EUSKALTEGIA

Lehen Tilosetan, bihar Atsegindegin, ote? //



Tilosetako gure aiton-amonen
oroitzapenak //



JUAN MARI IZAGIRRE - SUKALDARIA
«Nire ustez, gutxiago eta hobeto
jan behar dugu» //



IV/ Hernanin parke naturala ere badaukagu
Aiako Harria parke ezezaguna historiaz eta
aberastasunez beteta dago

Egileen argazkia //



Lehen Tilosetan, bihar Atsegindegin ote?

Gaur egungo gazteek, Hernanin, ez daukate leku irekirik dantza egiteko. Gure aiton-amonen garaian Tilosetan dantzaldiak arrakasta handia izan zuen. Horregatik, artxibora joan gara Tilosetako historia jakiteko eta aiton-amonei elkarrizketa batzuk egin dizkiegu. Gazteei ere galdetu diegu ea zer gustatuko litzaiekeen dibertitzeko.



Tilos garai batean.

Tilosen historia (txikia)

HERNANIN musika tradizioa aspalditik dator. Nahiz eta Tilosetako garaia izan ospetsuena, urte asko lehenago baizeuden Musika Banda eta Txistulariak. Esate baterako, 1895ean sortu zen Musika Banda, Hernaniko gazteek osatua, eta banda horrek jotzen zuen jai-egunetan eta igandeetan.

Dirudienez, hasieran "bailables" herriko plazan egiten zuten. Hala ere, Tilosetan egiten zirenean lortu zuen arrakasta handiena. 1953an hasi omen zen dantzaldia Tilosetan egiten, beheko aldean zegoen kiosko txiki batean. 1957an, ordea, gaur egungo kioskoa inauguratu zuten eta orduan hasi zen garairik onena. "Bailables" urtean zehar egiten zuten, baina, batez ere, udan bihurtu zen Hernani gune nagusia. Jendea inguruko herri guztietatik etortzen zen eta dantza egin baino lehen meriendatzera eta sagardoa hartzera joateko ohitura zeukaten. Zazpietan Musika Banda jotzen hasten zen eta bi

atsedenaldietan txistulariek jotzen zuten. "Txaperoa" mutilen atzetik ibiltzen zen ordainarazteko eta lortzen zuten diruarekin musikariak laguntza jasotzen zuten. Neguan 21:30ak arte egiten zuten dantza; udan 22:00ak arte.

Txistulariak direla-eta, gorabehera batzuk izan ziren: batzuek "al agarrao" dantzatu nahi izaten zuten eta txistulariak jotzen hasten zirenean iskanbilak sortzen zituzten. Horregatik, 1965ean txistulariek, Ansorena ospetsuek, dimittitu egin zuten. Hurrengo urtean kanpoko txistulariak etorri ziren jotzera eta 1966an herriko gazte batzuk berriz hasi ziren jotzen. Handik urte gutxitara txistulariek eta dantza sueltoak arrakasta handia lortu zuten.

Baina dena bukatzen da. Bandak jotezari utzi zionean orkestina bat hasi zen jotzen, bandako lauzpabost kidek osatua. Azkenaldian, berriz, noizbehinkajotzen zuen talderen batek eta 1977an amaitu zen Tilosetako "urrezko aroa".

Gure aiton-amonen Tilosetako oroitzapenak

BADIRA hirurogeita hamar bat urte Hernaniko Tilosetan arrakasta handia zutela bailableek. Gure aiton-amonak bertara joaten ziren dantzatzera. Horregatik, Hernaniko zahar egoitzara joan gara hango aiton-amonei galdera batzuk egitera.



Zenbat maitasun eta adiskidetasun istorio ikusi ote dute Hernaniko Tilosetik?

EUSKALTEGIKO IKASLEAK: Zenbat urte zenituen Tilosetara joaten zinenean?

AMONA: Ni, Tilosetara, hamasei urterekin hasi nintzen joaten.

Zer zegoen Tilosetan garai hartan?

Igandetan dantzaldia zegoen, giro oso ona egoten zen eta jende asko etortzen zen herri guztietatik.

Eta ostegunetan ere izaten zen, ezta?

Bai, baina jende gutxi etortzen zen. Jendeak lan egin behar zuen.

Zertara joaten zineten? Dantzatzera edo mutilak ezagutzera?

Denetik zegoen. Dantza egitea asko gustatzen zitzaigun eta jendea ezagutzera ere bai. Batzuk joaten ziren andre-gaia edo senargaia aurkitzeko eta dantza ondoren errepidetik paseatzera joaten ginen eta beste batzuk zirriren bat egitera joaten ziren.

Bailabletan norbaitek mutil batekin oso helduta dantza egiten ikusten

bazintuen eta apaizak jakiten bazuen igandeko mezan sermoi handia botatzen zuten.

Zer dantza mota izaten zen?

Pasodobleak, sueltoa eta bukatzeko beti kalejira egiten zuten Bartani ize-nez ezaguna herrian.

Eta zuk, Tilosetan ezagutu zenuen zure senarra?

Ez, ez, lanean ezagutu nuen.

Zergatik kendu zituzten Tilosetako dantzaldiak?

Ba, beste leku batzuk ireki zituztelako eta jendea leku haietara hasi zen joaten; adibidez, Young Play eta horrelakoak... Horregatik, Tilosetara jende gutxi etortzen zen eta banda Tilosetatik desagertu egin zen.

Oroitzapen onak etortzen zaizkizun gara hartatik?

Bai, oso onak. Giro oso ona zegoen eta oso ondo pasatzen genuen.



Atsegindegi plaza.

Gazteentzat Atsegindegi da lekua

DUELA hogeita hamar bat urte Tilosetako "bailables" bukatu zirenez gero eta gaur egun gure gazteentzako ezer ez dagoenez, erabaki dugu haiei zera galdetzea: *Tilosetako "bailables" berriz martxan jarrai bai ala ez?*

Badakigu gaur egun bizitza asko aldatu dela eta guretzat oso inportantea da gazteen iritzia jakitea; horregatik, inkesta txiki bat egin

diegu jakiteko zer pentsatzen duten gai honi buruz.

Gazteek disko-jaiak nahiago

Galdetutako gazteek 15 urte inguru dauzkate eta gehienek zerbait entzun dute Tilosetan aspaldi egiten zen dantzari buruz; esate baterako: dantza zela, aire librean antolatzen zutela, inguruko herrietatik jendea etortzen zela...

Nahiz eta gutxi ezagutu, ideia ona iruditu ez ezik, gustatu ere gustatuko litzaieker zerbait antzekoa edukitzea. Haien aukera da disko-jaiak egitea hilean behin, larunbatean, gaueko 21:00etatik aurrera, baina ez Tilosetan, Atsegindegin baizik. Gehien gustatzen zaien taldeetako bat *Abiba disko-jaiak* da, arrakasta handia izan baitzuen San Juan festetan. ||

JUAN MARI IZAGIRRE BALERDI - Errioguarda jatetxeko sukaldaria:

«Nire ustez gutxiago eta hobeto jan behar dugu»

JUAN Mari Izagirre Balerdik, Hernaniko sukaldari honek, 20 urte daramatza sukaldaritzan munduan. 32 urterekin hasi zen eta maiatzean 15 urte beteko ditu Errioguarda jatetxean.

Beti sukaldaria izan al zara?
Ez, sukaldaria izan baino lehen beste lan batzuk egin nituen: administrari lanak, liburuak saldu, euskara irakatsi eta orain sukaldaria. Espero dut hau azkena izatea.

Zergatik aldatu zenuen lana?
Euskara irakaslearena kontatuko dizuet. Soldaduskatik etorri nintzenez, alfabetatzen hasi nintzen euskaltegi batean. Momentu horretan bulego bateko lana bukatu zitzaidan, eta alfabetatzen ari nintzen euskaltegi horretan euskara irakaste izatea eskaini zidaten. Nik baietz esan nien. Ikasi eta irakatsi egiten nuen. Urte batzuk pasa ziren eta nire burua ez nuen seguru ikusten. Lan asko, lan zaila, seguritate falta...

Garai hartan, 30 urte nituen eta sukaldaritzan mundua interesatzen zitzaidan. Jatea eta jan behar nuen hori prestatzea oso gustuko nuen.

Sukaldaritzaz ez nekien ezer eta zeretik hasi nintzen.

Norekin ikasi duzu sukaldaritzan?

Karlos Argiñanorekin. Emazteak Argiñano ezagutzen zuen eta beraren bidez galdetu nion ea berarekin ikasi ahal nuen, eta Argiñanok baietz esan zidan. Honetaz gain, Inemen eta beste jatetxeetan ikastaroak egin nituen. Dena den, oinarria Karlos Argiñano izan da.

Zure etxean badago sukaldaritzan tradizioirik?

Bai eta ez. Gure amari asko gustatzen zitzaion janaria prestatzea. Oso sukaldari ona izan da. Ama Ugaldetxoko tabernan jaio zen eta taberna hau, tabernaz gain, jatetxea eta



Juan Mari Izagirre eta Elena Izagirre, Errioguarda jatetxean.

denda izan da. Denetik zegoen. Halere, niri transmisioa oso berandu iritsi zait.

Zergatik dauka jatetxeak Errioguarda izena?

Etxearen izena, berez, "Guardarios" da. Zalantza izan genuen izena mantendu ala ez. Baina ni Urumea erreka baten izena naiz. Aita Aranokoa eta ama Ugaldetxokoa. Ni errekan asko ibili naiz eta han "errioguardak" egoten ziren. Dena den, hemen kalean "guardarios" izenarekin ezagutzen zen. Horregatik, niretzat errioguarda hitza ezagunagoa da eta jatetxea guk ireki behar genuenez, euskaraz jartzea erabaki genuen.

Zergatik Hernanin?

Lokala familiarena da. Orduan, lokala izanda... Gainera, familia ere etxe honetan bizi da.

Hasiera gogorra izan al zen?

Bai. Hasieran ez geneukan ezer. Ilusioa eta bi esku. Besterik ez. Zeretik hasi behar duzu. Gainera, Hernani gunean ez dago jatetxerik. Ez geneukan erreferentziarik.

Nagusia zu zara eta lan asko

egin behar duzu, ordu asko. Eta hasieran denetik: jabe, pintxe, sukaldari, harreman publikoak, klientela egin behar duzu, kreditua eskatu... Gauza askotaz arduratu behar duzu eta hasiera gogorra izan zen.

Inoiz pentsatu al duzu beste jatetxerik irekitzea?

Ez. Zertarako? Handiago izateko? Lan gehiago egiteko? Dirua gehiago irabazteko? Dirua gehiago irabazteko? Dena den, jatetxe honek badauka bere istorioa. Orain urte batzuk, jatetxe hau berriro genuen. Ondoko etxea bota egin zuten berria egiteko eta guk aprobetxatu egin genuen zati bat erosteko. Honela, sukaldaria eta jangela berriro genituen eta jatetxe handiagoa egin genuen.

Noiz egiten duzue lan gehiago? Astegunetan ala asteburuetan?

Berdintsu. Ostegunetik aurrera bi otordu ematen ditugu eta asteleheneetik asteazkenean otordu bat.

Zeintzuk dira Errioguardako espezialitateak?

Nahiko galdera zaila da.

Badakit, jendeak gauza batzuk oso gustura jaten dituela. Adibidez: krepeak (txipiroi krepeak, barazki krepeak, bakailao krepeak...). Halere, entsalada, arraina eta haragia ere oso gustura jaten ditu jendeak. Egia esan, denetik egiten saiatzen gara.

Zer nahiago duzu? Betiko sukaldaritzan ala sukaldaritzan berria?

Hemen pixka bat herren geratu naiz. Berandu hasi nintzen eta ikasi egin behar. Gero jatekoa ireki nuen. Nire burua oso lotuta ikusten dut gauza berriekin hasteko. Denbora beharko nuke eta nire burua ez dut indartsu ikusten honelako apustu batean sartzeko. Hor geratu naiz pixka bat.

Nik uste dut egiten dudana ondo egiten badut eta modernitate tokea ematen badiot, ondo dagoela. Ni, behintzat, konformatzen naiz. Dena den, ni gaztea banintz, bietatik probatuko nuke. Batak ez du beste kentzen.

Zure ustez, sukaldaritzan dena asmatuta dago?

Nik uste dut ezetz. Oraindik asmatzen ari dira. Baina, berrikuntzak egiteko denbora behar duzu. Eta nik momentu honetan, ez daukat denborarik.

Aurrerago zuk uste duzu posible izango dela plater biologikoak Errioguardan aurkitzea?

Zaila ikusten dut. Batetik, produktu gutxi daude eta bestetik, garestiak dira. Nik eskaintza egin dezaket, baina beste prezio batean.

Eguneroko menuaren prezioarekin ezin dut. Hala ere, jendea gehiago ordaintzeko prest badago, zergatik ez?

Azken urteotan bezeroaren gustua aldatu al da?

Ez dakit. Nik uste dut ez dela aldatu. Nik esango nuke orain bariatuagoa jaten dugula.

Euskaldunoi jatea asko gustatzen zaigu. Zure ustez, euskaldunok badakigu jaten ala gehiegi jaten dugu?

Nik uste dut gehiegi jaten dugula. Nire ustez, gutxiago

jan behar dugu eta hobeto. Beste herrialdeekin eta kulturarekin konparatuta, hemen hobeto jaten da.

Zein bezero mota etortzen da Errioguardara?

Astegunetan, eguerdiko otordura, bere lanagatik kanpoan bazkaltzen duena. Ez da buzko langilea. Komertzialak, bankariak... 8 edo 10 euro baino gehiago ordaindu dezakeen jendea. Bestetik, bikoteak, lagunak... zerbait ospatzera etortzen direnak.

Asteburuetan, berriz herriko jendea etortzen da. Koardilak, bikoteak... diru pixka bat duen jendea.

Esango zeniguke errezeta erraz bat?

Ikasi nuen lehenengo errezeta esango dizuet: ijito-besoa. Honetarako, 8 arrautza, 150g azukre eta 100g irin behar dugu.

Lehenengo, arrautza gorringoak eta azukrea nahastu. Ondoren, irina bota. Gero zuringoa altxa. Dena nahastu eta labe plaka batean jarri. Masa zabaldu, labean sartu eta 10 minutu 150 gradutan ipini. Hau da oinarria eta gero zuk nahi duzuna jarri.

JUAN MARIEN GUSTUAK

Gustuko platera?
Barazki menestra

Gustuko edaria?
Ardoa

Gustuko postrea?
Hojaldrea

Gustuko jatetxea?
Ez dakit. Lasai eta txukun ematen duen edozein

Gustuko sukaldaria?
Gutxi ezagutu ditut.

Euskal Herrikan kanpoko gustuko sukaldaritzan?
Ez daukat esperientzia handirik horretan. Gutxi ibili naiz Euskal Herrikan kanpo.

Maniarik sukaldean?
Dena niri egitea gustatzen zait eta hori ez da posible.

Hobby bat?
Mendian ibiltzea, musika entzutea, irakurtzea eta jatea

Gustuko musika?
Garai batekoak. Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Beatles.

Gustuko liburu bat?
Erraz irakurtzen diren nobelak

Gustuko kirola?
Eskupilota

Gustuko lekua?
Euskal Herria, Galizia, Peru...

Hernanin parke naturala ere badaukagu

Aiako Harria parke ezezaguna historiaz eta aberastasunez beteta dago.

KONTURATU gara hernania-
rrok ez dakigula Aiako Harria
Parkearen zatitxo bat Hernanin
dagoela. Horregatik, artikulua
honekin erakutsi nahi dizuegu
non dagoen eta zer dagoen.

Europa Batasunaren diru
laguntzei esker 1995eko apirilaren
11n izendatu zuten Parke
Natural eremu hori. Guztira,
6.913 ha. dauzka, bost herritan
banatuta: Irun, Errenteria, Oiar-
tzun, Donostia eta Hernani.
Hernanik 620 ha. dauzka gutxi
gora behera, azaleraren %9.

Ia parke guztia publikoa da
(%80 gutxi gora behera).
Batzorde kudeatzaile bat dago,
bertan lehendakaria, herri ba-
koitzeko ingurumeneko tekni-
karia eta zinegotzia daude.
Urtean bi aldiz elkartzen dira,
eskaerak eta iradokizunak egi-
teko eta jasotzeko. Batzorde
hori Gipuzkoako Foru Aldun-
diaren ardurapean dago eta
Aldundiak kudeatzen du Eu-
ropatik bidalitako diru la-
guntza.

Bestalde, gune horretarako
espresuki hiru zaintzaile dau-
de. Herri bakoitzak duen baso-
zainak ere laguntzen du lan
horretan.

Parkean fauna eta landaredi
aukera handia dago. Garai
bateko biztanleen ondareak ere
badaude: trikuharriak, tumu-
luak, sarobeak... Eta mendian
ibiltzea gustatzen zaienentzat
ibilaldi polit batzuk egiteko
aukera.

KULTUR- ONDAREA

Paraje horretan **sarobeak** aur-
kituko ditugu, besteak beste.
Sarobeak lur eremuak ziren,
zirkunferentzia itxurakoak, eta
dirudienez, artzainek erabil-
tzen zituzten lur horiek bere
ardiak bazkatzeko eta eduki-
tzeko. Artzain bakar batek er-
biltzen omen zuen sarobe osoa
eta izan zitekeen pribatua edo
herriarena.

Sarobe erdian harri bat
zegoen: artamugarria. Artamu-
garriak markatzen zuen sarobe-
aren erdiko puntua. Gai-
naldean, gurutze edo asterisko
tankeran, lau, zortzi edo hama-
sei marra egon ohi ziren
(Hernanin hamahiru marra
duen sarobe bat ezagutzen da),
eta hauek markatzen zuten
baztermugarria non zen.
Artamugarritik baztermugarri-
rainoko distantzia, alegia, sarobe-
aren erradioa, 142-147 metro
artekoa zen paraje hauetan.

Hernanin 5 sarobe aurkitu
ditzakegu artamugarri eta



Akolako trikuharria.

guzti, baina baztermugarri
asko galdu egin dira. Akola
baserri inguruan badago sarobe
bat. Beste sarobe bat Al-
katxuingo baserriaren ondoan
dago eta han aurkituko dugu
bitxikeria bat, artamugarria
aprobetxatu baitute iturria egi-
teko. Hirugarren sarobe bat
Muliskon dago eta horren
ondoan trikuharri, mairubaratza
eta beste megalito batzuk
aurkituko ditugu; izan ere,
sarobeak askotan megalitoen
inguruan egoten ziren baina ez
zituzten inoiz euren barruan
harrapatzen.

Esan dugun moduan, kul-
tur ondarea zabala da, adibi-
dez, Akolako parkea Euskal
Herri osoan trikuharrien den-
sitate handieneko **inguru me-
galitikoetako** bat dugu. Izan
ere, 4 km-ko eremu batean 14
egitura aurkitzen dira. Hori-
tako batzuk trikuharriak dira
eta horiek erraustutakoen hila-
bi kolektiboak dira, panteoien
gisara, artzain-taldeek Brontze
Aroan duela 4.000-2.900 urte
eraikiak. Trikuharri horietako
asko, zoritxarrez, oso hondatu-
ta daude indusketa arkeologi-
koen eraginez edo elezaharrek
dioten moduan, beren barruan
gorderik zituzten altxorren bila
ibili izanaren ondorioz.

Hala eta guztiz ere, egitura
horiek ikusi nahi izanez gero,
eta merezi du ikustea, hemen
dugu Akolako parkean egiteko
ibilaldi bat. Zazpi kilometro-
koa da eta gutxi gora behera
hiru orduan egin daiteke.
Paseotxo hori Larreagaingo le-
poan hasiko da, han utzi behar-
ko dugu autoa eta oinez ekingo
diogu ezkerretik abiatzen den

bide bati, eta 50 m. egin ondo-
ren, eskuinetara zabalitzen den
bidetik abiatuko gara, amerikar
haritzak aldatu dituzten iratze-
leku batean barneratuz.

NATUR-ONDAREA

Hernani aldean dagoen parke-
ko basoan oso zuhaitz ederrak
ikus daitezke, nahiz eta orain-
dik ere pinua ugariena izan.
Dauzkagu intxusa, lizarra, gur-
bitza, haritza, pagoa eta gaztai-
nondoa, besteak beste.

Gaur egun **zuhaitz** autokto-
noak landatzen ari dira, denok
dakigulako pinuek kalteak egi-
tzen dituztela. Aurten, adibi-
dez, otsailaren 17an eta 18an,
zuhaitz-eguna antolatu dute
Udalak eta mendiriz-mendi
elkarteak eta parkean, Apa-
rrainen, pagoa landatu dute.

Bestalde, **hegaztiak** mota

askotakoak daude, esaterako
buztanikara, txantxangorria,
txepetxa, Martin arrantzalea,
ur-zozoa... Harrapariak ere
ikusiko ditugu: hontzak, mozo-
loak; zapelatzak, gabiraiak...
eta bestelakoak, putreak, adibi-
dez.

Hamaika **animalia** aurkitu-
ko ditugu. Ugaztunen artean
ugarienetakoak basurdeak di-
ra. Izan ere, Diputazioak bota
zituen basurdeak ugaritzeko
eta orain gehiegi daude. Ho-
riek baserrietan sartzen dira eta
kalteak eragiten dituzte. Parke-
ko beste animalia batzuk haue-
k dira: basakatuak, katajineta,
azkonarra, lepazuria, azeria,
bisoia, katagorria, muxar grisa
eta **mutur-luze piriniarra edo
ur-satorra**.

Azken animalia hori oso bi-
txia da, txikia, isats luzea, eta
mutur luzea, tronpa baten an-
tzekoa, eta horri esker uretako
zomorroak jaten ditu, izan ere,



Mutur-luze pirinearra galzorian.

erreka ertzean bizi da. Gaur
egun EAEko Espezie Mehatxa-
tuen Katalogoan "*Galzorian*"
moduan azaltzen da. Hori dela
eta, Gipuzkoako Foru Aldun-
diak berreskurapenerako Ur-
satorraren Kudeaketa Plan bat

jarri zuen abian 2004ko maia-
tzean.

Nola liteke parke natural
batean ehiza postuak egotea?
Galdetuko dio batek baino
gehiagok bere buruari. Bada
hauxe da arrazoia. Parke natu-
ral izendatu baino lehen, ehiz-
tariak eta postuak han zeuden
jadanik, eta LIFE programa
europarrak diru laguntza es-
kaini zuenean, subentzio hori
ez galtzeko, azkar samar egin
ziren gauzak eta ehizaren ara-
zoari ez zioten konponbiderik
eman. Hori dela eta, ehiza ez
dago debekatuta, erregulatuta
baizik. Udalak gero eta lizen-
tzia gutxiago ematen ditu eta
horrela ari da murrizten ehizta-
ri kopurua. Postuetan botatzen
direnez aparte, noizbehinka
basurde batidak egiten dira,
gehiegi ugaritu direlako.

AHOLKUAK

Gogora ezazue mendia goza-
tzeko zaindu behar dugula,
horregatik mendira zoaztenean
eta parkera, batez ere, kontuan
hartu hurrengo aholkuak.

Mantendu garbi parkea eta
ez utzi botata zaborra, batez
ere, beirak eta zigarrokinak.

Parke naturaleko leku ge-
hienetan motorra, autoa edo
quad-a erabiltzea debekatuta
dago.

Errespetatu fauna, landare-
di eta megalito aztarnak, zo-
ritxarrez, galdu dena galduta
dago, baina orain daukaguna
gure haurrentzat izango da.

Anima zaitzteze Hernaniko
bazter ezezagun eta zoragarri
honekin gozatzera eta ez ahaz-
tu: ondo pasa parkean baina ez
pasa parkearekin. ||

Egileak: Udal Euskaltegiko ikasleak

